

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2025eko MARTXOAREN 5eko

BILKURA AKTA LABURRA

Presente ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Corinne Othatcegy (20:00 arte), Jean-Paul Eyherachar, Isabelle Ayerbe, Roger Barbier, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Joana Lacarra, Jean-Pierre Gogny, François Hayet, Peio Etxeleku, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy, herri kontseilariak

Ezin etorriak: Jean-Noël Magis, auzapezordea, Corinne Othatcegy (20:00tik goiti) Jean-Jacques Lassus, Bernadette Remeau, Jean-François Lacosta, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Jean-Noël Magisek Vincent Goytinori; Corinne Othatcegyk Yolande Huguenardi (20:00tik goiti); Jean-Jacques Lassusek Didier Irastorzari; Bernadette Remeauk Roger Barbierri; Jean-François Lacostak Peio Etxelekuri.

20:00ak arte

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak.....	25
Ahalorde kopurua.....	4
Hor ez diren kopurua.....	4

20:00tik goiti:

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak.....	24
Ahalorde kopurua.....	5
Hor ez diren kopurua.....	5

– Saioko idazkariaren izendapena.

Presente ziren kideek aho batez izendatu dute Joana Lacarra anderea saioko idazkari izateko.

Auzapezak proposatu du Eliane Aizpuru anderea, lehen auzapezordea, izan dadila saioko lehendakari 2024ko Finantza Kontu Bakarrak aztertuko direnean (15. eta 16. puntuak)

Aho batez onartua.

– Solasgaiak:

001 – 2024ko abenduaren 10eko Herri Biltzarraren aktaren onespina.	2
002 – Auzapezak, Herri Biltzarraren delegazioz hartu erabakien komunikazioa.	3
003 - Nafarroa etorbidea: lur-sail baten eskuratzea eta eremu publikora pasatzea.	4
004 – 2025-2029rako bideetako obrentzako eskaera-orrien esparru-akordioa: APLGrekiko hitzarmena.	4
005- Petanka-gunearentzako eraikitze baimena: APLG hitzarmena.	5
006- "Villes & Villages fleuris" ziurtagiria: herriaren hautagaitza eta bazkidetza.	6
007- Besta komitea: 2025eko diru-laguntzaren aurrerakina.	7
008- GEUZ: 2025eko diru-laguntzaren aurrerakina.	8
009- 2024-2025 urterako goi mailako ikasketentzako herriko diru-laguntzen esleipena.	8
010- Hilobi kontzesio bat herriari itzultzea.	9
011- Langileria: osasun-geriza gehigarria - CDGari mandatua - partehartze hitzarmena- osasun arriskua.	10
012- Langileria: CDGren (kudeaketa zentroa) langabezi sarien txostenak kudeatzeko zerbituan izena ematea.	11
013- Aurrekontu nagusia: 2024ko eskuratze eta uzteen bilana.	12
014 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2024ko eskuratze eta uzteen bilana.	12
015- Aurrekontu nagusia: 2024ko Finantza Kontu Bakarraren bozkatzeta.	13
016 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2024ko Finantza Kontu Bakarraren bozkatzeta.	18

001 – 2024ko abenduaren 10eko Herri Biltzarraren aktaren onespina.

ERABAKIA:

2024ko abenduaren 10eko saioaren akta Herri Biltzarraren bozkara eman da.

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONARTU DU 2024ko abenduaren 10eko Herri Biltzarraren Akta.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak adierazi du Argitxu Hiriart-Urruty andereak aktaren 4. puntuan aldaketak egitea eskatu duela, "Oiloa" izendaturiko karrikaren izendapenari buruz eta aldaketa horiek kontuan hartuko direla.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak gehitu du karrika gizon elbarritu haren ezizenez izendatzea elbarritu oroz trufatzea dela.

Auzapezak ezadostasuna adierazi du eta bukatua den eztabaida ez duela berriz abiatuko.

002 – Auzapezak, Herri Biltzarraren delegazioz hartu erabakien komunikazioa.

ERABAKIA:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluetan xedatua denaren arabera, Auzapezak Herri Kontseiluak 2020ko ekainaren 11an onartu dizkion delegazioen baitan hartu dituen erabakien berri eman behar du:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2024ko azaroaren 23tik 2025eko otsailaren 14ra:
- 2024ko azaroaren 28a: 400 €an baloratu diren Rosemonde Gérard anderearen gutunak ematearen onartzea;
- 2024ko azaroaren 28a: Maurice Rostanden eskuizkribu baten ematea onartzea
- 2024ko azaroaren 29a: 1 100 000 €ko mailegu baten hartzea La Caisse d'Épargne Aquitaine Poitou Charente bankuan.
- 2024ko abenduaren 5a: norbanako batek 3 900 €an baloratua den dokumentu multzo baten (argazkiak, Coquelin-en gutunak) ematea onartzea;
- 2024ko abenduaren 16a: Poupel karrikaren 1.ean den herriko etxebizitzaren alokairuaren berrikustea 2025eko urtarrilaren 1etik goiti;
- 2025eko urtarrilaren 16a: Kanboko altxortegian eperako kontu baten irekitzea 2025eko urtarrilaren 20tik eta 6 hilabeterako, 612 000 €ko zenbatekoarekin;
- 2025eko otsailaren 14a: herriko etxebizitzaren 2025eko alokairuen berrikustea.

Herri Biltzarrak, aho batez:

Auzapezak Herri Biltzarraren delegazioz hartu erabakien berri HARTU DU.

HITZ HARTZEAK:

Amaia Beyrie andereak galdetu du ea 1 100 000€ko mailegua sarri aipatuko den.

Auzapezak erantzun dio maileguaren gaia behin eta berriz aipatua izan dela eta zehaztu du 1 111 000 €ko finantzamendu beharra aipatu zela aitzineko saioan. Gehitu du gaia berriz aipatuko dela Aizpuru andereak administrazio-kontua aurkeztuko duenean.

003 - Nafarroa etorbidea: lur-sail baten eskuratzea eta eremu publikora pasatzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio VIGNES Françoise andereak prestutasuna adierazi duela AX 98p2 lur-sailaren zati bat euro sinbolikoaren truke herriari uzteko. Nafarroa etorbideko 2. zenbakian den eskuratze horri esker herriak bidegurutzea segurtatzen ahalko du.

Trukean, herriak dagoen hesia suntsitu eta berdina eraikiko du: horma eta burdin sarea, eta landareen berriz landatzea. Lan horien kostua 3 500 €koa izanen da.

Herri Biltzarrari eskatu dio ekintza horren printzipioari buruzko erabakia hartzea.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU Nafarroa etorbideko 2. zenbakiko AX 98p2 lur-sailaren zati bat eskuratzeko printzipioa, 45 m²koa eta trukean hesia suntsitu eta berdina eraikitzea eta landareen landatzea, 3 500 €ko kostu batentzat.

ONARTU DU lur-saila eremu publikora pasatzea,

ZEHAZTU DU gastu guztiak herriaren gain izanen direla (salmenta egintza, geometroa,...).

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari ekintza horren burutzeko behar diren izapide guztien egiteko eta txosten horri datxikon dokumentu oro izenpetzeko.

004 – 2025-2029rako bideetako obrentzako eskaera-orrien esparru-akordioa: APLGrekiko hitzarmena.

ERABAKIA

Auzapezak oroitarazi du 2021eko urtarrilaren 11ko 11-01-2021-002 erabakiz Herri Biltzarrak eskaera-orrientzako esparru-akordio bat izenpetzea onartu zuela bide eta orotariko sare obrentzat, lau urterako, 2021 eta 2025 artean.

Indarrean den merkatu hori 2025eko maiatzaren 11an bukatuko da.

Ondorioz, ezinbestekoa da beste merkatu bat abiatzea lau urterako eskaera-orrientzako esparru-akordio baten bidez, 2025 eta 2029 arterako.

Herriak aurreikusi du esparru-akordio horretako enpresen kontsulta txostena egiteko laguntza teknikoa eta administratiboa APGLren esku ezartzea.

Laguntza misio hori gehienez 14 egun-erdikoa izanen da, egun-erdi bakoitzeko 309€tan

Horretarako, APGLrekin hitzarmena izenpetu behar da, honakoari erantsia zaion bezala.

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONARTU DU 2025-2029rako bideetako obrentzako eskaera-orrien esparru-akordioaren erredakzioa APLGren esku ezartzea.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, honakoari erantsia zaion APGLrekiko hitzarmena izenpetzeko, baita gaiarekin lotura duen agiri oro.

005- Petanka-gunearentzako eraikitze baimena: APLG hitzarmena.

ERABAKIA:

Irastorza jaunak biltzarrari oroitarazi dio petanka-gune berri batentzako lanak egin behar direla.

Proposatu du proiektuaren gauzatzea abiatzea, eta APGLren (Tokiko Kudeaketaren Agentzia Publikoa) Ondare eta Arkitektura Herri arteko Zerbitzuari laguntza tekniko eta administratiboko misio bat eskatzea. Agentziak tokiko erakundeetako zerbitzu teknikoek lan hori egingo luketen ber baldintzetan egingo luke.

Irastorza jaunak zehaztu du horretarako hitzarmen bat egin behar dela. Hitzarmen proiektua aurkeztu du eta biltzarrari eskatu dio horren izenpetzeko baimena eman diezaion.

Kontuan izanik, herriak ez duela halako txosten baten gain hartzeko zerbitzu teknikorik, baina Ondare eta Arkitektura Herri arteko Zerbitzuaz balia daitekeela beste bazkide batzuekin denbora partekatuz;

Misioa gehienez 8 egun-erdira baloratu da, egun-erdi bakoitzeko 299 €ko prezio batekin.

Irastorza jaunaren azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU APGLren (Tokiko Kudeaketaren Agentzia Publikoa) Ondare eta Arkitektura Herri arteko Zerbitzuari laguntza tekniko eta administratiboko misio bat eskatzea petanka-gune berri baten egiteko herriari laguntza tekniko eta administratiboa eman diezaion, honakoari erantsia zaion hitzarmenaren arabera.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari honakoari erantsia zaion hitzarmena izenpetzeko, baita gaiarekin lotura duen agiri oro.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak kostuaren balorazio bat eskatu du.

Didier Irastorza jaunak erantzun dio ez duela gogoan.

Auzapezak erantzun du gogoz uste duela 120 000 eta 130 000 € artean izanen dela, baina zenbateko zehatza fite atzematen ahalko duela.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du proiektua jadanik existitzen diren petanka zelaien soilik estaltzeko denetz.

Auzapezak baieztatu du soilik estaldura proiektua dela. Estetika ikuspegitik, estaldura tenis zelaienaren antzekoa izanen da, koherentzia bisuala atxikitze.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du zenbat petanka zale baden.

Didier Irastorza jaunak erantzun dio gutxi gorabehera 80 bazkide direla, eta horietatik 20 edo 25 lizentziatuak direla eta lehiaketetan parte hartzen dutela. Gehitu du kurista askok baliatzen dutela beren arta egonaldian, behin behineko bazkidetza merke bati esker. Petanka-

guneak animazioak antolatzen ditu udako arratsetan. Halaber azpimarratu du giroa nabarmen hobetu dela, 19:00 eta 19:30 artean hesten dela eta edari-banaketa berantiarrek bukatu direla.

Auzapezak zehaztu du petanka elkarteak talde bat baino gehiago duela, gizonak eta emazteak, eskualde mailan ari direla eta emaitza onak dituztela.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea kanboarrek petanka-gunea balia dezaketen lizentziatuak izan gabe.

Didier Irastorza jaunak baietz.

006- "Villes & Villages fleuris" ziurtagiria: herriaren hautagaitza eta bazkidetza.

ERABAKIA:

Hargain-Despéries andereak honakoa azaldu du:

Kanbo "turismo-gune" sailkatua da 2015etik. Bere bazter berdeak, termak eta ondare kulturala estimatuak dira. Urtero bisitari andana errezibitzen du eta bizi-kalitatea atsegin dute bertakoek.

Horiek horrela, herriak kalitatezko eremu publikoak eskaini nahi ditu, urtarroetan zehar bizi-ingurune atsegin eta jasangarria eskaintzeko. Bertako ingurumena eta landare-ondarea balioan ezartzeko, Kanbo herriak aurtan "Villes et Villages Fleuris" ziurtagiria eskatzeko xedea du.

« Villes et Villages Fleuris » ziurtagiriak Frantziako herriak sailkatzen ditu honako irizpideen arabera:

- bizi kalitatearen hobetzeko egin indarrak eta paisaia, landaretza eta loreen bidez gauzaturiko erakargarritasun estrategia.
- Gauzatu ekintzek honako helburuak dituztelarik:
 - Edertzea eta bizi-kalitatea balioan ezartzea,
 - Garapen iraunkorra eta bioaniztasunaren zaintza sustatzea,
 - Turismo-erakargarritasuna indartzea
 - Biztanleak edertze eta ingurumen sentsibilizazio proiektuetan inplikaraztea.

Urraspidearen abiarazteko, egutegi bat adostuko da "Villes et Villages Fleuris"-ko Kontseilu Nazionalan (CNVVF) zehaztu baldintzetan:

- 2025eko martxoaren 31 baino lehen "Villes et Villages Fleuris"-ko Kontseilu Nazionalan (CNVVF) bazkidetza hartzea, ziurtagiria eskuratzeko bidean laguntza eta aholkuak ukan ahal izateko.
- 2025eko apirilaren 30a baino lehen urteko bazkidetza saria ordaintzea, zeina biztanle kopuruaren arabera baita, hots 4. kategoriakoa (3500 eta 9900 biztanle artean): 225 €.
- 2025eko apirilaren 7a baino lehen aurkeztea herriaren hautagaitza eta aurkezpena.
- 2025eko udan zehar ziurtagiriaren epaimahaia Kanbon errezibitzea eta herriaren bisita eginaraztea.

Ziurtagiriaren maila guzietan, (1 eta 4 lore artean), epaimahaikideek CNVVFek zehaztutako irizpideen arabera ebaluatu eta sailkatzen dituzte herri hautagaiak. Batez beste hiru urtetik behin kontrol bat egiten da dinamika onean segitzen dutela bermatzeko. Halere, herriak epaimahaiari galde diezaioke mailaz igotzea

"Villes et Villages Fleuris" ziurtagiriak aukera berezia eskaintzen dio Kanbo herriari ingurune naturalaren, bertakoen bizi kalitatearen, ekonomia garapenaren eta turismo erakargarritasunaren aldeko engaiamenduak agerian emateko.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU Kanbo herria Villes et Villages Fleuris ziurtagiriaren Kontseiluko (CNVVF) bazkide izateko,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, bazkidetza txostena izenpetzeko, baita bazkidetzari datxikion dokumentu oro ere,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, urteko bazkidetza saria ordaintzeko,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, ziurtagiriaren prozedurarako hautagaitza txostena aurkezteko,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, Villes et Villages Fleuris (CNVVF) ziurtagiriaren Kontseiluko ziurtagiria eskuratzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak egiteko, landare-ondarearen zaintzea eta balioan ezartzea segurtatuz, eta horretarako dokumentu oro izenpetzeko

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak oroitarazi du Kanbok "Villes et Villages Fleuris" ziurtagiria eskuratu zuela lehen agintaldian, baina txostenaren ardura zuen auzapezordearen eta ziurtagiriaren Kontseiluaren artean tentsioak izan zirela. Orduan, herriko lorezainek lan bikaina eginik ere, herriak lore bakarra atxiki zuen. Auzapezorde haren ustez Kanboren sailkapen maila injustua zen bere ustez kalitate eskasagoko beste herri batzuek sailkapen hobea izan zutela ikustean. Espero du ez dela berriz halakorik gertatuko, eta oroitarazi du ziurtagiria ongi ezaguna dela, estimatua dela, aurkeztu diren ekintza eta helburuetan ageri den bezala.

007- Besta komitea: 2025eko diru-laguntzaren aurrerakina.

ERABAKIA:

Huguenard andereak adierazi du, 2025eko otsailaren 22ko gutun batean Kanbo gaineko besta komiteak 4 000 €ko diru-laguntza aurrerakina eskatu duela, besten antolaketak diru-laguntza eman diezaion bitartean.

Eskaeraren arrazoia da, batetik besten antolatzeko gastuak aurretiaz egin behar dituztela, bereziki zerbitzu eskaintza eta komunikazioan, eta bestetik 2025eko martxoko ihauterientzako gastu handiak egin behar izan dituztelako.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU Kanbo gaineko besta komiteari 4 000 €ko diru-laguntza aurrerakina ematea 2025 urterako.

Corinne Othateguy anderea gelatik atera da.

008- GEUZ: 2025eko diru-laguntzaren aurrerakina.

ERABAKIA:

Goytino jaunak honakoa azaldu du:

2025eko otsailaren 26ko gutun batean, GEUZak 50 000 €ko diru-laguntza aurrerakina eskatu du, 2025eko herriko diru-laguntza eskuratu bitartean.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU Gizarte Ekintzako Udal Zentroari (GEUZ) 2025 urteko diru-laguntzaren aurrerakina ematea, hots 50 000 €.

009- 2024-2025 urterako goi mailako ikasketentzako herriko diru-laguntzen esleipena.

ERABAKIA:

Aristizabal andereak, auzapezordea, oroitarazi du Kanbo herriak urte zenbait daramatzala Kanboko estudianteei diruzko laguntza eskaintzen, baxoaren ondoko LMD ikasketetan edo frantses estatuaren bekak jaso ditzaketen formakuntzetan izena eman dutenentzat, herriko bekak emanez. Estudianteak Kanbon izan behar du familiaren egoitza nagusia.

Informazio gisara, iazko unibertsitate ikasturterako 18 txostenek baiezko erabakia ukan zuten, orotara 9 001 €ko beka batekin.

Herriko bekak 28 urtetik beherako estudianteei ematen zaizkie, frantses estatuaren beka baldin badute, estatu hark finkatu gizarte-irizpideen arabera, eta zenbatekoa haren %15ekoa da.

"Eskola-Hautzaro-Gazteria" batzordea 2025eko otsailaren 20an bildu zen 2024-2025 ikasturterako aurkeztu zitzaizkion 18 herriko beka eskaeren aztertzeko. Batzorde hark Herri Biltzarrari proposatu dio 18 eskaerak onartzea, orotara 8 117 €ko zenbateko batekin, 2024-2025 ikasturterako.

Horretarako kredituak 2025eko hasierako aurrekontuan daude.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU 2024-2025 ikasturterako goi mailako irakaskuntzarako 18 herriko beka eskaerak esleitzea, orotara 8 117 €ko zenbatekoarekin.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak zehaztu du Pirinio Atlantikoetako Departamenduak ordura arte ematen zuen beka bertan behera utzi duela, baina herriko etxeak berea mantentzea erabaki duela lehenagoko baldintzetan. Honela, frantses estatuaren beka eskuratzeko familia-koefizientea dutenek herriko beka jaso ahal izan dute, hots estatuaren bekaren %15.

010- Hilobi kontzesio bat herriari itzultzea.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak Herri Biltzarrari jakinarazi dio Gisèle Karine Danièle VALCARCEL andereak, Urketako Filon bideko 111. zenbakian bizi denak herriari itzuli nahi diola 3430 zenbakiko hilobi kontzesioa, zeina Kanboko hilerriko G Saileko 5. lerroko 11. zenbakian kokatua baita eta 2017ko apirilaren 20an eskuratu zuena.

Izatez, VALCARCEL andereak 30 urteko hilobi kontzesioa du, eta horrentzako 380 €ko saria ordaindu du, eta 3 590 € erositako 6 lekuko gela-hilobi baten jabe da.

VALCARCEL andereak jakinarazi digu aldaketak gertatu direla bere bizian, ez dela gehiago herrian bizi eta ez duela gehiago hilobi batean ehortzia izan nahi.

Hilobia ez da sekulan erabilia izan, eta ondorioz gorpurik gabe dago.

Hilobi kontzesio baten itzultzea administrazio eta justizia jurisprudentziek dute arautzen, ez ordea lurralde kolektibitateen kode orokorrak (LKKO).

Kontzesio baten erostea administrazio-egintza da, bi aldeen arteko kontratu izaerakoa. Kontratua eremu publikoan da indarrean. Herriak leku bat esleitzen du eta eroslea (lehen erosleak) kontzesioaren tituludun bilakatzen da, Herri Biltzarrak proposatu LKKOko L.2223-14 artikulua zehaztu iraupenetako batentzat. Tituluduna da kontzesioaren erregulatzaile, aukeratu duen kontzesio motaren arabera (indibiduala, kolektiboa edo familiakoa); hautua alda dezake.

Kontratuaren aldeetako bat denez, erabaki dezake kontzesioa herriari itzultzea, eta kontzesioaren gainean dituen eskubideak eteten zaizkio. Herriak kontzesioaren itzulketa onartzen badu, aldean arteko kontratua bertan behera gelditzen da, baldin eta kontzesioa ez bada sekula erabilia izan edo gorpu eta gorpuzkinak bertatik ateratuak izan badira, bi baldintza hauek ezinbestekoak izanik kontzesio berri baten emateko leku horrentzat. Herriak denboraren arabera diru itzultzea egingen du. Herria ez da behartua kontzesio baten berriz hartzera; tituludunak eskubide erlatiboa du, ez eskubide absolutua, herriari itzulketa eskaera egiten dionean.

Herriak itzulketa onartzen badu, zenbait baldintza eman ditzake.

Ondorioz, Herri Biltzarrari galdegina zaio aipatu itzulketa horri buruzko erabakia hartzea.

➔ Itzulketa horren burutzeko, denboraren arabera diru itzultzea 278,52 €koa litzateke, honako kalkuluaren arabera:

$380 \text{ €} / 30 \text{ urte} = 12,66 \text{ € urtean} \quad 22 \text{ urte gelditzen dira} \quad \text{beraz } 12,66 \times 22 = 278,52 \text{ €}$

➔ Gainera, VALCARCEL andereak 2017an erosi zuen 6 lekuko gela-hilobiaren dirua itzultzea proposatu dio Herri Biltzarrari, honako baldintzetan:

-kontuan izanik 6 lekuko gela-hilobia ez dela sekula erabili eta ondorioz gorpurik ez dagoela, garaian erosi zen ber prezioan itzultzean, hots 3 590 €.

Itzulketa-egintza bide horretatik joanen da.

Azalpenak entzunik,

Gisèle Karine Danièle VALCARCEL andereak, Urketako Filon bideko 111. zenbakian bizi denaren eskaera IKUSIRIK,

KONTUAN IZANIK, eskaerari baiezkoa emanen zaiola.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ONARTU DU Gisèle Karine Danièle VALCARCEL andereak proposatu duen itzulketa (kontzesioa eta gela-hilobia) honela herriak 6 lekuko gela-hilobi bat berreskura dezan.

ONARTU DU denboraren arabera 278,52 €ko diru itzultzea, 2017ko apirilaren 20an 30 urterako hartu zen 380 €ko kontzesioarentzat.

ONARTU DU 3 590 €ko zenbatekoa itzultzea, egun hartan erosi zuen 6 lekuko gelahilobiarentzat.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari horretarako izapide oro egiteko eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko.

011- Langileria: osasun-geriza gehigarria - CDGari mandatua - partehartze hitzarmena- osasun arriskua.

ERABAKIA:

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Indarrean den araudiaren arabera, tokiko erakundeek eta egitura publikoek gizarte segurantzaren berme osagarrien finantzazioan parte hartu behar dute, 2026ko urtarrilaren 1etik goiti, "osasun" arriskuen arloan (amatasun, eritasun eta istripu gastuak).

Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroa behartua da lurraldeko enplegatzaile publikoei Osasun eta Aurreikuspen arriskuak bermatzeko partehartze hitzarmenak proposatzera.

Erakunde eta egitura publikoei proposatzen die Osasun arriskua bermatzeko Departamenduko urraspide batean sartzea, 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

Departamenduko Kudeaketa Zentroko urraspide horren xedea da tokiko erakunde eta egitura publiko guztiei juridikoki segurua den hitzarmen bat proposatzea.

Hitzarmena osasun segurantza osagarriko mutua eta horien batasun batekin, aurreikuspen erakunde batekin edo segurantza enpresa batekin izenpetuko da deialdi publiko bat egin eta gero.

Baldintza horiek direla-eta, herriak badu interesik Departamenduko Kudeaketa Zentroak deialdi bidez bideratuko duen halako urraspidean sartzeko.

Honako erabakiaren bidez Kudeaketa Zentroari mandatua emanez herriak ez du bere deialdi publiko propioa egin beharko eta harpidetza bateratuen prezio merkeagoak izanen ditu departamenduko egituren eskaera bateratuari esker.

Auzapezak zehaztu du, deialdiaren urraspidea ikusirik, behin betiko bazkidetzarentzako beste erabaki bat hartu beharko dela, kudeaketa zentroak baldintzak eta prezioak jakinarazi eta gero.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU Herriak Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroaren esku uztea osasun segurantza osagarri baten proposatzea, deialdi publiko baten bidez, eta 2026ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko dena.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari horretarako izapide oro egiteko eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko.

Herria engaiatzen da estatistika datuak ematera, deialdia antolatzeke biztanleria datuak eman ahal izateko.

Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroak proposatuko duen partehartze hitzarmena izenpetzeko erabakia berantago hartuko da.

012- Langileria: CDGren (kudeaketa zentroa) langabezia sarien txostenak kudeatzeko zerbituan izena ematea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarkideei azaldu die, funtzio publikoko funtzionarioek eta kontratupekoek badutela, sektore pribatuko langileek bezala, langabezia segurantzako Enplegura Itzultzeko Laguntza ukateko eskubidea.

2020ko ekainaren 16ko 2020-741 frantses dekretuak, sektore publikoko langileei aplikagarriak zaien langabezia erregimenari buruzkoa, ahalbidetzen duela langabeziaren indemnizazio arauak funtzio publikoko enpleguen berezitasunetara egokitzea. Zehazten ditu EIL eskubideak irekitzeko eta isurtzeko baldintzak, bereziki lan galtzea nahigabekoa denean eta indemnizazioaren zenbatekoak kalkulatzeko modua ere ematen du.

Kudeaketa Zentroak bazkide izanen dituen erakundeak laguntzea proposatzen du beren lehengo langileen EIL eskubideen aztertze, kalkulatzeko eta kudeatzeko.

Laguntza hori ukan ahal izateko, tokiko erakundeek ezinbestean erabakia hartu beharko dute eta Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroarekiko hitzarmena izenpetu.

Auzapezak proposatu du enplegura itzultzeko dirulaguntzen txostenak kudeatzeko Kudeaketa Zentroak eskaintzen duen zerbitzuarentzako hitzarmena izenpetzea 2025eko urtarrilaren 1ean indarrean sartzeko.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU Kudeaketa Zentroak proposatu enplegura itzultzeko dirulaguntzen kudeatzeko hitzarmenean bazkide izatea 2025eko urtarrilaren 1etik goiti,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari eranskinean den hitzarmen izenpetzeko,

ZEHAZTU DU kredituak aurreikusi direla urteko aurrekontuan.

HITZ HARTZEAK:

Jean-Paul Alaman jaunak ohartarazi du Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroaren eginkizunak gero eta ugariagoak direla, eta horietako batzuk arrats honetan bozkatu direla. Galdetu du ea zerbitzu horiek jadanik existitzen ote ziren, ala eskaintza berriak diren.

Auzapezak ihardetsi dio zerbitzu berriak direla, besteak beste legezko betebeharrak batentzat. Zehaztu du Kudeaketa Zentroak bere laguntza eskaini duela, bereziki herri txikiei, kontratu egokituak izenpetzeko aukera emateko xedearekin, berezikiago halako gaiak beren kabuz lantzeko gaitasunik ez dutenentzat. Azpimarratu du ekimen horien xedea dela arau eta norma gero eta zorrotzagoek finkatu exigentziei erantzutea. Ohartarazi du ere, lehengo bi gaiak langileen ongizatearekin dutela zer ikusia, denentzako aterabide egokia atxemaiteko.

Philippe Bacardatz jaunak arrangura adierazi du herriko langileen artean gaitasunak galtzen ari direlakoan.

Auzapezak erantzun dio ez dela gaitasun galtzerik, zehazturik Kudeaketa Zentroak soilik esku hartzen duela txostenen kudeaketan.

013- Aurrekontu nagusia: 2024ko eskuratze eta uzteen bilana.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, azaldu du, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2241-1 artikulua arabera, 2000 biztanletik gorako herrietan egiten diren eskuratze eta uzte ekintza guzrien bilana urtean behin bozkatua izan behar dela Herri Biltzarrean.

Honakoa da 2024ko bilana:

- a) Eskuratzeak: urrik eskuratuak, Bordart etorbideko AV 198 (36ca) eta Joseph Chatard Medikuaen karrikako AV 200 (7a 39ca) lur-sailak.
- b) Salmentak: 2024ko ekitaldian ez da funts salmentarik egin.

Herri Biltzarrak, Aizpuru anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONETSI DU, aurrekontu nagusiko 2024ko eskuratze eta uzteen bilana.

014 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2024ko eskuratze eta uzteen bilana.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, azaldu du, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2241-1 artikulua arabera, 2000 biztanletik gorako herrietan egiten diren eskuratze eta uzte ekintza guzrien bilana urtean behin bozkatua izan behar dela Herri Biltzarrean.

Honakoa da 2024ko bilana:

- a) Eskuratzeak: zergaz kanpoko zenbateko orokorra: 19 273,75 €, honela banaturik:

- 4 lekuko 4 hilobi; orotara 11 000 €;
- 2 lekuko 3 hilobi: orotara 5 500 €;
- 6 errauts-hilobi (errauts-hilobi 1 = 4 errauts-kutxa): orotara 1 353,75 €;
- granito arrosako 3 plaka errauts-hilobientzat: 870 €;
- hilarri bateko hizkien ezabatzea: orotara 550 €;

- b) Salmenta: orotara eta zergaz kanpo, 4 683,32 €, honela banaturik:

- 4 lekuko gela-hilobi 1: orotara 2 500, 00 €;
- 4 errauts-hilobi (errauts-hilobi 1 = 4 errauts-kutxa): orotara 2 183,32 €

Herri Biltzarrak, Aizpuru anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU aurrekontu nagusiko 2024ko hilobi eta kolunbarioen eskuratze eta uzteen bilana.

015- Aurrekontu nagusia: 2024ko Finantza Kontu Bakarraren bozkatzea.

ERABAKIA:

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra (LKKO);

IKUSIRIK, 2025eko otsailaren 25eko finantza batzordearen iritzia,

IKUSIRIK, Kanboko aurrekontu nagusiko 2024ko Finantza Kontu Bakarraren (FKB) sintesi-oharra;

IKUSIRIK, Kanboko aurrekontu nagusiko 2024ko Finantza Kontu Bakarra;

KONTUAN IZANIK, FKB-k administrazio kontua eta kudeaketa kontuan ordeztzen dituela, halako dokumentuak arautzen dituzten legezko eta arauzko xedapenei jarraikiz;

KONTUAN IZANIK, FKB-k herriaren finantza egoerari buruzko gako-informazioak agerian ezartzen dituela, bereziki emaitzen, bilanaren, emaitzen kontu sintetikoei eta loturiko ekarpen eta etekinei aurkezpenari dagokionez,

KONTUAN IZANIK; FKB erabat digitalizaturiko izapidea dela, agintaritzaren eta kontulariaren arteko informazio trukaketa eta kontrol automatizatuak ahalbidetuz, eta horrek FKB aurkeztu baino lehenagoko urratsak errazten dituela;

Aizpuru anderearen, auzapezordea, lehendakaritzapean, zeina aurrekontuko dokumentuen prestatzeaz arduratzen baita, Herri Biltzarrak aurrekontu nagusiko 2024ko Finantza Kontu Bakarra aztertu du, honako datuekin:

Inbertsio atala

Inbertsioak	
INBERTSIO SARTZEAK	3 037 464,42 €
INBERTSIO GASTUAK	2 553 327,43 €
2023ko emaitzaren berriz hartzea	240 698,11 €
2024ko inbertsio soberakina	724 835,10 €
2024ko Gauzatzeke daudenak	231 365,62 €
2024ko etekin garbi metatua	956 200,72 €

Funtzionamendu atala:

Funtzionamendua	
2024ko funtzionamendu sartzea	7 610 549,22 €
2024ko funtzionamendu gastuak	7 212 357,48 €
2023ko emaitzaren berriz hartzea	717 528,77 €
2024ko funtzionamenduko soberakina	1 115 720,51 €

Aitzineko datuak kontuan izanik:

Eztabaidatu eta deliberaturik, Devèze jaun auzapeza gelatik kanpo zegoela, Herri Biltzarrak gehiengoz, abstentziorik izan ez baita eta zazpik kontra bozkatu baitute,

ONARTU DU Kanbo herriko aurrekontu nagusiko 2024ko Finantza Kontu Bakarra

EMAN DIO Auzapezari, erabaki honen egikaritzeko neurri ororen hartzeko ahalmena.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

Eliane Aizpuru andereak adierazi du lehen "Administrazio kontu" deitzen zena 2024tik goiti "Finantza Kontu Bakarra" deituko dela. Zehaztu du aldaketa horrek engoitik aktibo ibilgetua galdezkatuko duten kontuen edukia ez duela aldatzen. Agintaritzaren eta kontulari publikoaren arteko aktibo ibilgetuaren hurbilketa jadanik abiatua da eta bururaino eramanen da. Horretarako eskaera egingo zaio Altxortegi Publikoari. Finantza zerbitzua eskertu du, bereziki Benoit, Valérie eta Vanessa, kontu-ekitaldia hesteko egin duten lanarentzat, Sébastien Guber joan eta gero.

2024ko ekitaldia, aitzinekoak bezala Ukrainako gerraren eta inflazioaren testuinguruan kokatzen da. Inflazioaren atzerakada berresten ari da, eta 2024ko kontsumoaren prezioen indize harmonizatua %2 inguru ibiliko da. Gogora dezagun 2023an %4,90ekoa zela.

Emaitza orokorrak 1 840 555,61 €ko etekina ematen du.

Aizpuru andereak funtzionamendu ataleko sartze eta gastuetako zenbaki guztiak irakurri ditu, jarraian agertzen diren bezala:

Funtzionamendu sartzeak.....	8 328 077,99 €
Inbertsioen egikaritze saldoaren gibelatzea	717 528,77 €
Kargen lausotzeak.....	27 301,92 €
Zerbitzuen sartzeak.....	1 101 593,24 €
Zergak.....	4 560 619,92 €
Zuzkidurak, dirulaguntzak eta parte hartzeak.....	1 442 079,42 €
Kudeaketa arrunteko beste sartzeak	340 606,14 €
Finantza etekinak.....	35 715,00 €
Ez ohiko etekinak	7 577,32 €
Sailen arteko ordena eragiketak.....	95 056,26 €

Funtzionamenduko sarrera errealak 211 082,73 €z emendatu dira, hots %2,89 aurrekontua baino gehiago, eta 185 938,99 €, hots %2,58 gehiago 2023ko administrazio kontua baino.

Honakoek eragin dute funtzionamendu sartzeetan:

- 61 901 €ko emendatzea zerbitzuen etekinetan (kultur zerga bereziak + 37 000 €; eskolaldi ingurukoa + 13 000 €; hilerrietako kontzesioak + 8 000 €).
- 22 546 €ko zergen apaltze bat, besteak beste + 206 000 € tokiko zerga zuzenetan; + 15 000 € egonaldi zergarentzat; -233 000 € higiezin salmenta zergarentzat; -8 000 € elektrizitate zergarentzat.
- Zuzkidura, dirulaguntza eta parte hartzeen sartzeen emendatze arina, 68 446 €koa.
- 55 203 €ko emendatzea bestelako kudeaketa etekinetan (alokairuak +35 000 €; bestelako etekinak + 19 000 €).
- 35 715 €ko finantza etekinak.

Aizpuru andereak funtzionamendu gastuak aurkeztu ditu.

Funtzionamendu gastuak.....	7 212 357,48 €
Karga orokorrak.....	2 130 730,13 €
Langileria kargak eta antzekoak	3 527 082,25 €
Etekinen lausotzeak	101 787,81 €
Kudeaketa arrunteko beste zergak.....	857 469,09 €
Finantza kargak.....	97 507,03 €
Ez ohiko kargak	1 245,54 €
Sailen arteko ordena eragiketak.....	496 535,63 €

Funtzionamenduko gastu errealak 274 317,16 €z murriztu dira, hots %3,92 aurrekontua baino gutiago, eta 114 163,76 €, hots %1,67 2023ko administrazio kontua baino gutiago.

Honakoek eragin dute funtzionamendu gastu errealetan:

- Karga orokorren tipitze bat, 222 959 €koa.
- 117 323 €ko emendatzea langileria kargetan (kontratatzeak, indize-puntuazioaren berrikustea 2023an, 2024/01/01ean indizeko 4 punturen ematea, gizarte kargak eta zergak).
- 17 571 €ko emendatzea kudeaketa gastu arruntetan, nagusiki herriko forfaitaren emendatzea + 9 741; Turismo Bulegoa + 13 000 €, herriko bekak + 2 475 €; ehorzketak -8 100 €, kaltetuentzako laguntza + 3 000 €; hautetsiak + 2 393 €.

Funtzionamendu ataleko sartze eta gastuak kontu-ekitaldiari lotzeko lana (hartzekoak eta zorrak) orain dela 4 urte hasi zen eta segitua izan da.

Alabaina, gastu engaiamendu anitz ezin izan dira 2024ko ekitaldira lotu; 172 543,41 €an baloratzen dira (bereziki mantenu kontuak 66 901 €rekin, eta azterketa-ikerketa kontua 88 838, 04 €rekin, hots orotara %90).

Ondotik, Aizpuru andereak inbertsio ataleko kontuen irakurketa egin du, honelako banaketarekin:

Inbertsio sartzeak	3 278 162,53 €
Inbertsioen egikaritze saldoaren gibelatzea	240 698,11 €
Zuzkidurak, Orotariko Funtsak, Erreserbak	924 254,56 €
Inbertsiorako diru-laguntzak	506 871,40 €
Maileguak eta antzeko zorrak	1 101 219,00 €
Sailen arteko ordena eragiketak	496 535,63 €
Ondare ekintzak	8 583,83 €

Honakoek eragin dute inbertsio sartzeetan:

- Antolamendu zergaren 92 756 €ko apaltze bat;
- FCTVA-ren 28 386 €ko emendatzea;
- Inbertsio diru-laguntzaren 411 881 €ko tipitze bat;

Ondotik, Aizpuru andereak inbertsio ataleko gastu kontuen irakurketa egin du, honelako banaketarekin:

Inbertsio gastuak	2 553 327,43 €
Zorren itzultzea	446 383,45 €
Ibilgetu gorpuzgabeak	34 737,90 €
Inbertsiorako dirulaguntzak	161 122,43 €
Ibilgetu gorputzdunak	421 214,52 €
bidean diren ibilgetuak	987 311,16 €
Beste finantza ibilgetuak	398 917,88 €
Sailen arteko ordena eragiketak	95 056,26 €
Ondare ekintzak	8 583,83 €

Aizpuru andereak jasotako 2024ko diru-laguntzak zehaztu ditu, zeinek 2023rekiko 411 881 €ko beherapean izan baitute:

- Organoa (Organoaren Lagunen itzulera)	171 000,00 €
- Tennis zelairako diru-laguntzaren saldoa	168 024, 78 €
- Arnagako aitzinaldeak	31 692,35 €
- Arnaga (margotzea eta segurtasun neurriak)	53 550,00 €
- Arnaga, obren eskuratzea eta DRACen parte hartzea.....	603,20 €
- Herriko Etxearentzako Funtz Berdeak	5 448,00 €
- Bru Etxearentzako Funtz Berdeak	6 817,50 €
- Trafikoko argi-seinaleak	30 000,00 €
- Nafarroa etorbideko elektrifikazioaren hedatzea (Etxe Alaia)	39 163,91 €
- Mediateka.....	571,66 €

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea diru-laguntzen apaltzea, aitzineko urtearekiko, inbertsioen edo lanen ttipitzeari zor ote zaion.

Eliane Aizpuru andereak erantzun dio diru-laguntzen murriztea ez dela inbertsioen apaltzeari lotua, baizik eta gero eta zailago dela horien ukatea, eta laburbildu du erranez "garai latzak direla".

Inbertsio gastuei dagokienez, eta bereziki PB/OKei buruz, Amaia Beyrie andereak galdetu du ea zelai sintetikoarentzat (31 572 €), ezker-parearentzat (64 000 €) eta Laranjategiarentzat (50 000 €) eman diren zenbatekoak %100ean ikerketa gastuei dagozkienetz.

Eliane Aizpuru andereak baieztatu du, gogoz, aipatu zenbatekoak ikerketa gastuenak direla, zeren oraindik ez baita lanik hasi. Zehaztu du abiatu diren lan bakarrak pilotaren lokalarenak direla, zeinak 2025ean hasi baitira.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea zelai sintetikoarentzat egikaritu diren ikerketa gastuak baliatuko ote diren proiektu berriarentzat, ala diru-laguntzen eskuratzeko arazo soilak ote den.

Auzapezak erantzun dio zelai sintetikoaren gaia Aurrekontuaren Norabide Eztabaidan eta bereziki Hasierako aurrekontuarekin aipatuko dela. Zehaztu du gai horri buruz gogoetatzen ari direla, Kanboko Izarrak helarazi duen dokumentua kontuan hartuz. Aitortu du gai konplexua dela, baina berretsi du aterabideak atzemateko duen borondatea.

Jean-Paul Alaman jaunak igerilekuko etxebizitzaren aurrekontu-lerroari buruzko galdera egin du, 2022-2023an agertzen baitzen baina 2024an ez. Jakin nahi luke zer gertatzen den proiektu horrekin edo apartamenduarekin.

Didier Irastorza jaunak ihardetsi dio pilotaren lokala eraberritzen ari direnez, igerilekuko apartamendua erabiltzen dutela pilotaren egoitza gisa, lanak bukatu artean. Ondorioz, etxebizitza horren lanak gibelatuak izan dira.

Nathalie Aïçaguerre andereak herriko lau etxebizitzaren energia-eraberritzeari buruz galdetu du, lanak 2024an egin behar baitziren, 60 000 €ko aurrekontu batekin, baina 860 € besterik ez baitira erabili.

Eliane Aizpuru andereak erantzun dio energia-eraberritze lanak ez direla oraindik abiatu, eta horregatik 860 € baizik ez direla gastatu.

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du zeintzuk diren energia-eraberritu behar diren lau etxebizitzak.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du honako hauek direla energia-eraberritu behar diren lau etxebizitzak: hilerriko etxebizitza; Behereko Plazako eskolako etxebizitza; igerilekuko zaindariaren etxebizitza zeinean ezin baita lanik egin erabilia delako; jendarmeriako etxebizitza.

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du alokairuan ematen diren herriko etxebizitza guzietan arauen arabera energia diagnostikoa dutenez.

Auzapezak erantzun dio Energia Eraginkortasuneko Diagnostikoak egiten ari direla. Orain arte, bi etxebizitzek G sailkapena ukan dute eta ondorioz horien alokairu saria edo errenta izoztua izan da.

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du etxebizitza horiek eraberrituko diren ez.

Jean-Paul Eyherachar jaunak azaldu du etxebizitzak husten badirela eta herriko etxeak berriz alokairuan eman nahi badituela lanak egin behar direla. Baina, etxebizitzak erabiliak dauden bitartean, ez dago lanen egiteko beharmendurik.

Beste galderarik ezean, Auzapezak egin den lana goraipatu du, bereziki finantza gaietarako auzapezordeak eta Benoît Teillet langileak zeina lan horri espontaneoki lotu baitzaio. Azpimarratu du bere ohiko lan eremutik atera dela ingurune berrian eraginkortasunez lan egiteko.

Auzapezak ohartarazi du herriko funtzionamendu ataleko sartze errealak 7 509 000 €koak direla, gastuak 6 563 000 €koak eta horrek 946 000 eko kudeaketa-aurrezkia eragiten duela (iragan urtean 644 000 €koa zenean). Aurrezki gordina, zorraren interesak ordaindu-eta, 855 000 €koa da (578 000 € 2023an).

Herriaren deszorpetze gaitasuna, aurrezki gordina 2024ko abenduaren 31an zor zen kapitalarekin alderatuz lortzen dena, 5,16 urtekoa da, erran nahi baita 2023koarekin konparatuz hobetzen dela, 6,52 urtekoa baitzen. Ratio hori 10 eta 12 urteko atalase kritikoak baino askoz beherago da. Honela, gure herriak biziki egoera ona du izari bereko beste batzuekin alderatuz

Testuinguru orokor zail batean diru-laguntzak eskuratzeko zailtasunak izanik ere, funtzionamendu gastuen kudeaketa onari esker, bereziki soldatetan, lortu ahal izan ditugu honelako emaitza onak. Auzapezak, bukatzeko, Aizpuru anderea eskertu du egin duen kalitatezko azalpenarentzat.

Aïçaguerre andereak galdetu posible izanzen denetz berantago 6232 "Bestak eta ospakizunak" eta 6234 edo 6157 "Harrerak" kontuen xehetasunak e-mailez ukatea?

Auzapezak baietz erantzun dio.

Auzapeza gelatik atera-eta, Aizpuru andereak jakinarazi du finantza batzordeak aho batez 2024ko finantza kontuari buruzko aldeko iritzia eman duela. Herri Biltzarrari proposatu dio kontuen bozkara pasatzea.

Auzapeza gelara sartu da.

016 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2024ko Finantza Kontu Bakarraren bozkatzea.

ERABAKIA:

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra (LKKO);

IKUSIRIK, 2025eko otsailaren 25eko finantza batzordearen iritzia,

IKUSIRIK, Kanboko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 2024ko Finantza Kontu Bakarraren (FKB) sintesi-oharra;

IKUSIRIK, Kanboko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 2024ko Finantza Kontu Bakarra;

KONTUAN IZANIK, FKB-k administrazio kontua eta kudeaketa kontua ordeztan dituela, halako dokumentuak arautzen dituzten legezko eta arauzko xedapenei jarraikiz;

KONTUAN IZANIK, FKB-k herriaren finantza egoerari buruzko gako-informazioak agerian ezartzen dituela, bereziki emaitzen, bilanaren, emaitzen kontu sintetikoak eta loturiko ekarpen eta etekinei aurkezpenari dagokionez,

KONTUAN IZANIK; FKB erabat digitalizaturiko izapidea dela, agintaritzaren eta kontulariaren arteko informazio trukaketa eta kontrol automatizatuak ahalbidetuz, eta horrek FKB aurkeztu baino lehenagoko urratsak errazten dituela;

Aizpuru anderearen, auzapezordea, lehendakaritzapean, zeina aurrekontuko dokumentuen prestatzeaz arduratzen baita, Herri Biltzarrak hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 2024ko Finantza Kontu Bakarra aztertu du, honako datuekin:

Funtzionamendu atala:

Funtzionamendua	
2024ko funtzionamendu sartzea	4 699,25 €
2024ko funtzionamendu gastuak	19 273,75 €
2023ko emaitzaren berriz hartzea	33 434,79 €
2024ko funtzionamenduko soberakina	18 860,29 €

Aitzineko datuak kontuan iznaik:

Eztabaidatu eta deliberaturik, Devèze auzapezaren presentziarik gabe, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU Kanboko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 2024ko Finantza Kontu Bakarra.

EMAN DIO Auzapezari, erabaki honen egikaritzeko neurri ororen hartzeko ahalmena.

Eliane Aizpuru andereak funtzionamendu atal soileko ekintzak aurkeztu ditu. 2024an, aitzineko urtetik berriz hartu den funtzionamenduko soberakina 33 434,79 €koa da. Funtzionamenduko sartzeak 4 699,25 €koak dira (gela-hilobien salmentak: 4 683,32 €, kudeaketa arrunteko etekinak: 15,93 €) eta gastuak 19 273,75 €koak. Aitzineko urteko funtzionamendu ataleko soberakinaren berriz hartzea, 33 434,79 €koa, emaitza metatua 18 860,29 €koa da.

HITZ HARTZEAK:

Hiriart-Urruty andereak galdetu du zertan den gela-hilobien eraberritzea.

Aizpuru andereak azaldu du gela-hilobien eraberritzeko prozedura luzea dela (5 urte), bereziki eskubidedunak atzemateko eta egin behar diren iragarpenak egiteko. Erran du epea jada gainditua denez herriak zenbait kontzesio berriz merkatura ditzakeela.

Auzapeza gelatik atera-eta, Aizpuru andereak biltzarkideei proposatu die kontuen bozkara pasatzea.

Auzapeza gelara sartu da.

-Informazioak:

Auzapezak bi informazio partekatu nahi izan ditu.

Lehena Ursuya klinikari dagokio. Zehaztu du nahita aipamen orokorretara mugatuko dela, jokoan diren interes pribatuekiko errespetuz, eta ez duelako inolaz ere egitura horren kudeaketari buruzko oharrik egin nahi.

EOA/ARS Eskualdeko Osasun Agentziaren eskariz, 2025eko otsailaren 25ean bilkura bat izan da Herriko Etxean, honakoak presente izanik: EOarentzat Elleboode jauna, Eskualdeko Zuzendaria; Guinamant jauna, Departamenduko Zuzendaria; Boeuf anderea, medikua, eta Herriko Etxearen izenean Eliane Aizpuru anderea, zeinak osasun arloa ongi ezagutzen baitu, Gilles Medevielle eta Auzapeza.

Elleboode jaunak, Ursuya klinikaren egoera aipatuz, hainbat arazo zerrendatu ditu: gobernantza zailtasunak, pazienteen harreraren segurtasun kontuak, Publikoari Irekiak diren Egituren araudiari buruzko arazoak, besteak beste suteen kontrako segurtasun neurriak. Azalpena bukatu-eta, auzapezari eskatu dio bere oharrak egin ditzan.

Publikoari Irekiak diren Egiturek bete behar dituzten suteen kontrako neurriei dagokienez, Auzapezak oroitarazi nahi izan du herriko etxea beti inplikatu dela, nahiz eta halako egitura baten kudeaketari buruzko gaitasunik ez izan. Oroitarazi du, suteen kontrako segurtasunari dagokionez Auzapezarena dela arduraren zati bat, Prefekturarekin eta zehazkiago suprefekturarekin partekatzen duena.

Auzapezak azpimarratu du 2023ko urritik etengabe aritu direla Ursuya klinikako arduradunari eta jabeari beren erantzukizunak oroitarazten, bereziki gobernantza eta suteen kontrako neurriei dagokienez. Aizpuru anderea eta Medevielle jauna eskertu ditu gai horretan izan duten inplikazioagatik. Suprefetarekin batera oroitarazpenak igorri dizkiete egiturak dituen betebeharrei buruz. Behin eta berriz Suprefekturara deituak izan dira, eta Auzapezak arreta berezia ezarri du suprefeta bilkuretan hor izan zedin, herriak eta suprefekturak bateraturik jardun zezaten klinikaren zuzendaritzaren aurrean.

Auzapezak zehaztu du Suhiltzaileekin suteen kontrako segurtasun neurriei buruzko elkarrizketetan egitura eraberritzeko eskema zuzentzaile bat izenpetu zela orain dela zenbait hilabete non Ursuya klinika argiki engaiatzen baitzen. Eskema horrek aurrekontu handiak eta urte batez egin beharreko lanen egutegia jasotzen ditu. Epe desberdineko gomendioak adostu ziren: neurri batzuk berehala hartu behar ziren, beste batzuk 3 eta 6 hilabete artean, eta proiektu osoa 2025eko agorrilerako bukatua izan behar da.

Auzapezak zehaztu du zer nolako metodoa segitu duen herriko etxeak Ursuya klinikako lanen segipena bermatzeko. Zerbitzu Teknikoek, bereziki Medevielle jaunak, hileroko bilkurak antolatu dituzte klinikan bertan, Aizpuru anderea eta Auzapeza bera hor izanik. Bilkura horiek balio izan dute lanak aitzinatzen ari zirela eta segurtasun gomendioak betetzen zituztela

bermatzeko, besteak beste APAVE kontrol bulegoarekin lankidetzan. Segurtasun bilkura bat izan da martxoaren 12an, eta auzapezaren aburuz, APAVE bulegoak erreserbak altxatzen baditu egiturak agorrilerako beteko lituzke arau guztiak. Azpimarratu du herria azkarki inplikatu dela, eta auzapezak duen polizia boterearen baitan ahal zen guzia egin dela egiturak segurtasun betebeharrak bete ditzan.

Auzapezak zehaztu du herriak suteen kontrako segurtasunean eskumenak ukan arren, Eskualdeko Osasun Agentziak (EOA/ARS) bestelako eskumena duela, pazienteen segurtasunari eta osasun segipenari begira. Bere ustez, EOaren lan metodoa ez da herriarena bezalakoa izan. Agentziak ustekabeko kontrolak egin ditu eta aktak erredaktatu. Auzapezak adierazi du EOak egoeraz duen irakurketa ez dela herriarena, nahiz eta Auzapezak aitortzen duen gaia konplexua dela, eta egitura horretako jabearen pertsonalitateak izan dezakeela horretan zer ikusirik.

Auzapezak azaldu du Eskualdeak duela eskualdeko osasun plana ezartzen eta martxoaren 13an bilkura garrantzitsua izanen dela Eskualdeko Prefetak deiturik. Arrangura adierazi du egoeraren bilakaerari buruz. Auzapezak begi onez hartuko luke EOak bere metodoa aldatuko balu eta herriarenarekin bat egingo balu, besteak beste jarraipen erregularrari eta hiruhileko bilanei dagokienez, datorren agorrilera arte. Proposatu du agorrilean puntu baten egitea, alde desberdinen txostenen argira, elkarren artean erabaki baten hartzeko.

Suprefekturari eta EOari jakinarazi die eginga izanen den lanari buruz bere iritzia propioa atxikiko duela, eta ez duela baitezpada Frantziar estatu mailan edo eskualde mailan har litekeen erabaki batekin bat eginen, iritzia autonomia bat atxiki nahi duelakoan.

Auzapezak biltzarrari jakinarazi nahi dio Ursuya egituraren egoera hauskorra dela eta azpimarratu gaia larria dela bai segurtasunari dagokionez baita ere gizakiengan izan ditzakeen ondorioengatik. Zehaztu du 76 ohe dituela klinikak, 80 familia hunkituak direla eta auzapez batek bere herriko jarduera eta enpleguak zaindu behar dituela. Nahiz eta beste egitura batzuek oheak eta langileak errezibitzen ahal dituzten, Auzapezak azpimarratu du langile batzuek hamarnaka urte ber egiturari lan egin eta gero zaila dela beste egitura batera aldatzea.

Beaulieu egiturarekin gertatutakoa ekarri du gogora, non oheak galdurik Kanbok egoera pairatu baitzuen.

Bukatzeko, erran du egoera kezagarria dela.

Bigarren gaiari dagokionez, Auzapezak jakinarazi du Kanbok sari bat ukan duela bere segurtasunarentzat, "Ville prudente" ziurtagiria eskuraturik. 2021ean lehen bihotz bat erdietsi eta gero, herriak berriki bigarren bihotz bat eskuratu du, zeina auzapezen kongresuan eskura eman baitzaio. Azpimarratu du ziurtagiri horrek segurtasunaren aldeko ekintzak saritzen dituela, hala nola berez erregulatzen diren semaforoak eta bestelako ekimenak. Auzapezak esperantza badu heldu den urtean hirugarren bihotz baten eskuratzeko.

– Bestelako gaiak:

Auzapezak adierazi du Peio Etxelekuk eta Jean-François Lacostak bi galdera helarazi dituztela.

Lehen galdera Seaska elkarteari buruzkoa da, hain zuzen Kanbon lizeo berria ezartzeari buruzkoa:

"Badakigu elkarrizketak izan direla Seaska elkartearen eta Herriko Etxearen artean Ikastolen federazioak bigarren lizeoa irekitzea iragartzen baitu Ipar Euskal Herrian. Geroago ohartu gara, prentsaren bidez, hiru leku baizik ez zirela atxiki azken buruko ikerketa lanentzat: Uztaritze, Hazparne eta Donapaleu.

Jakin genezake zein izan den Kanbo herriaren eta Seaska federazioaren arteko elkarrizketa horien edukia, eta zein arrazoiengatik gure herria ez den atxikia izan, gure ustez bi abantaila nagusi zituelarik.

Lehenik, gure herrira jarduera osagarriak erakartzearen abantaila eta ikasketa prozesuan segida bat eskaintzea gure herrian den Xalbador kolegioko ikasleei.

Bestalde, gure herriaren zentraltasuna indartuko zukeen".

Lehen puntuari dagokionez, "Badakigu elkarrizketak izan direla Seaska elkartearen eta Herriko Etxearen artean Ikastolen federazioak bigarren lizeoa irekitzea iragartzen baitu Ipar Euskal Herrian", Auzapezak baieztatu du elkarrizketak izan direla Seaska elkartearen eta herriko etxearen artean. Zehaztu du, 2024ko urriaren 7an Gorostiaga jaunarekin eta beste pertsona batekin elkartu zela proiektua aipatzeko. Gero, prentsa bidez jakin du hiru leku atxiki zituztela proiektuaren azken ikerketarako: Uztaritze, Hazparne eta Donapaleu.

Bigarren puntua: "Jakin genezake zein izan den Kanbo herriaren eta Seaska federazioaren arteko elkarrizketa horien edukia?".

Auzapezak azaldu du Seaska elkarteko zuzendaritzarekin izan zuen topaketan, elkartearen ordezkariak proiektuarekiko interesa agertu zutela, baina lizeo orokor bat izan beharrean laborantza lizeo bat zutela gogoan. Azpimarratu dute, baita ere, lur funts azalera handia behar zutela formakuntzarekin batera laborantza praktikak egin ahal izateko.

Amaia Beyrie andereak zehaztu du lizeoa lanbide lizeoa litzatekeela eta ez laborantza lizeoa.

Auzapezak azaldu du Seaska elkarteari erantzun diola osasungintzako eragileekin jadanik elkarrizketak izan zirela Beaulieu-ko funtsen zati bati buruz. Gras anderearen zuzendaritzapean, zeina etxebizitza eta ekonomia garapenerako suprefeta baita, topaketa batzuk izan ziren Kanbon laborategi bat ezartzeko. Baina proiektu horrek oztopoak izan ditu, bereziki Beaulieu-n izan zen sutearengatik. Auzapezak proiektu hori osasungintzako formakuntzarekin lotzeko aukera aipatu zuen. Halere, zehaztu du formakuntza proiektu hori goi-teknikari edo erizain formakuntzetara bideratu beharko litzatekeela, osasungintza sektorearen beharrei erantzuteko.

Auzapezak azaldu laborategi baten ezartzeko mentura aipatu duela zenbait osasun egiturekin, besteak beste Renaudin enpresako Korne anderearekin. Ideia azaldu dio, eta Korne andereak zuhur jokatu arren, onartu du bigarren hitzordu baten egitea afera aitzinatua izanen denean. Auzapezak gehitu du formakuntza ezartzeko aukera aipatu dunenean Korne andereak interesa adierazi duela, besteak beste atzerriko hizkuntzetan, zeren bere enpresan hainbat hizkuntza erabiltzen baitira eta langile batzuk eleanitzak baitira.

Auzapezak zehaztu du osasungintzako talde baten gutuna ere ukan duela, zeina Sebastien Carréekin harremanean baita.

Azaldu du talde horretako eskualdeko zuzendariarekin hitzordua izan dutela, zeinak interesa adierazi baitu urraspidearekin, eta bere nazio mailako taldeari aipatu eta gero berriak emanen zituela. Auzapezak bukatzeko erran du horretan dela gaia gaur egun.

Hirugarren puntua: "zein arrazoiengatik gure herria ez den atxikia izan?".

Auzapezak erantzun du berak dakienez gure herriaren aukera ez dela sekula baztertu. Azpimarratu du, dena den herriak egiazko interesa baduela, egiaztagarria, besteak beste Errobi eremuko bilkuretan, hala nola Auzapezen bulegoko azken-aurreko bilkuran, non proiektua publikoki aipatu baitzen Moulienian eta Beaulieu gunek aipatuz. Zehaztu du bilkura hartan Mizel Hiribarren han zegoela eta errandakoa egiaztatzen ahalko duela. Bukatzeko, ez daki Kanboko aukera baztertu izan denetz eta hala balitz zergatik ere ez dakiela. Edozein kasutan, ezin zaio herriko etxeari egotzi.

Amaia Beyrie andereak galdetu du Seaska elkartearekin harremanean sartu direnertz lizeoaren kokatzeko herriko etxeak dituen urraspideen berri emateko.

Auzapezak erantzun du herriko etxearen gogoetak Seaskarekiko lehen bilkuratik aipatu zirela. Zehaztu du egoera argiki azaldu zela, bereziki Kanbok osasungintzan duen berezitasuna, eta horrek dualitate bat eragiten zuela Beaulieuako gunean aurreikusten ziren proiektuen artean.

Amaia Beyrie andereak azpimarratu du herriko etxearen aldetik erantzun eza edo erantzun argirik ez ukatea Seaskak ezezko inplizitutzat har zezakeela, eta ondorioz Kanbo lizeoaren proiektutik behin betirako baztertu.

Auzapezak argitu du herriko etxeak ez duela sekula Seaskaren proiektua baztertu, eta bere irrika ere adierazi du proiektu hori osasungintza poloarenarekin uztartzeko aukeragatik. Halere aitortu du Seaska presatua zela leku baten hautatzeko eta horrek trukaketak zaildu zituela. Berretsi du prest dela haiekin berriz elkartzeko, baina zehazturik ez duela deus berririk eztabaidara ekartzeko.

Peio Etxeleku jaunak zehaztu du bere galdera neutroa zela. Soilik Kanbo Seaskaren lizeoa errezibitzeko lehentasunezko lekuen artean ez izatearen inpresioan oinarritzen zela. Gehitu du, bere eskuetan dituen datuen arabera, azken erabakia 2025eko ekainerako hartuko dutela.

Amaia Beyrie andereak berriz azpimarratu du Kanboren erantzun argi ezak berez Seaskaren proiektua baztertutzat eman zezakeela, eta biziki deitoratzen du. Agerian eman du herria gazteenganako azpiegitura edo ekimen azkarren eskasean dela, GEUZeko oharrek adierazten dutenez. Berretsi du interes handikoa litzatekeela 100 gazte berri ikustea Pertsonen Laguntza, Arta eta Zerbitzuen sail batekin, bereziki osasungintzako eta gizarte ekintzako tokiko ehunarekin non jadanik aurreikusiak baitira ikastaroetarako lankidetzak. Bere ustez, posizionamendurik ez erakustea gazteriarentzako aukera on bat huts egitea da, Kanborentzat eta lurralde osoarentzat.

Auzapezak aitortu du Seaskaren egutegiak aferaren bilakaeran eragina izan duela, baina uste du gaiak gogoeta sakon bat merezi duela, bereziki gure herriarentzat, Seaskarekiko azken urratsetan sartu baino lehen. Hedabideetan entzundakoari buruz, iruditzen zaio bi leku gelditzen direla lehian elkartearentzat. GEUZak gazteriari egin oharrei dagokienez, oroitarazi du osasungintzako taldeekin aipatu diren proiektuak ez direla adinekoetara mugatzen; formakuntza atalak sartzen dira, bereziki osasungintzan eta hizkuntzetan, hala nola Renaudin enpresarekin. Berretsi du proiektu horiek gazteentzako ere interesgarriak izan daitezkeela, eta azpimarratu du oztopo handiena Seaskaren egutegia zela.

Amaia Beyrie andereak azpimarratu du Seaskak jasaten duen presioa ez dela joko politiko bat, egiazko hertsapen bat baizik: Baionako lizeoa jadanik betea denez Seaskak urgentzian atzeman behar du aterabide bat eskaerari erantzuteko. Hortaz, gehitu du egutegiaren hertsapena Seaskak dituen erronketako bat dela.

Auzapezak bigarren galderari erantzun dio: "bestalde, 2025eko urtarrilean gehiengoak herri aldizkarian argitaratu duen azken artikuluari erantzuteko eskubidea egikaritu nahi genuke".

Auzapezak azaldu du uztailaren 26ko herri biltzararen saioan, aipatu bi pertsonak (Peio Etxeleku eta Jean-François Lacosta) azken herri aldizkarian ematen ziren zenbait elementuri erantzuteko eskubidea galdegin zutela.

Kari horretara azaldu zuen erantzuteko eskubidea kanal beretik egin behar zela, baina halere ohikoa ez den bezala onartu zuela erantzuteko eskubidea egikaritzea.

Gaur azpimarratzen du salbuespen hura behin bakarrik onartuko zuela. Gehitu du, bilkuren aktak idatziak diren ez bezala, erantzuna osoki eta hitzez hitz argitaratu zela. Etorkizunean gaizki ulertzerik izan ez dadin erantzuteko eskubidearen baldintzak oroitarazi ditu:

- *1981eko uztailaren 29ko Frantziako prentsaren askatasunari buruzko legeak dio norbaiti zerbait aurpegiratzen zaionean erantzuteko eskubidea duela egunkari berean. Halako xedapenak existitzen dira ikus-entzunezkoetan, sarean, eskubide horren bermatzeko.*
- *Erantzuna eskaera jaso eta ondoko zenbakian argitaratu behar da, oinarritzko artikuluen ber lekuan eta karaktere berekin.*

Adierazi du oraingoan erantzuteko eskubidea ez dela Herri Biltzarrean egingen. Zehaztu du datorren herri aldizkarian argitaratuko dela, baldin eta eskaera ohiko epeetan egiten badute. Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 21:35ean hetsi du.

Joana LACARRA
Saioko idazkaria

Christian DEVEZE
Kanboko Auzapeza